

Zangoza / 2025

KULTUR AGENDA

abuztua



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
SANGÜESA PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea

Kultur Zerbitzuaren udako arreta ordutegia: asteartetik ostiralera, 09.30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Erakusketa aretoko ordutegia: Asteartetik larunbatera, 11.30etik 14:00etara. eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaigunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Telefonoa:** 948 870 251.

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko lorategian egingen diren kontzertuetarako sarrera doan izanen da. Kontzertura sartzeko lorategiko atetik. Atea kontzertua hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da.

Lorategian eta Luis Gil Ikastetxeko jolastokian jarduera programatuta dagoen egunetan, Kultur Etxea itxita egonen da arratsaldean.

Zangozatik bisita antzetzua dagoen igandeetan, Kultur Etxea itxita egongo da.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es

Gure kultur agenda Facebooken eta www.sanguesacultura.es

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Beherapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean. .

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzeko ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatutik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak Babesteko Legea hemen kontsultatu: www.sanguesa.es

KULTUR AGENDA

abuztua



1 Os	Erakusketa «El conocimiento en el Camino» (abuztuaren 17ra bitarte)	4 Orr.
2 La		
3 Ig	Antzeturiko bisita	6 Orr.
4 Al		
5 As		
6 Az		
7 Og		
8 Os	Kultur 2025. Jerónimo Maya eta Miguel Jiménez. Rímur	6 Orr.
9 Sá		
10 Ig	Antzeturiko bisita	6 Orr.
11 Al		
12 As		
13 Az	Antzerkia, zirkoa. Proyecto Kavauri: «Lullaby»	8 Orr.
14 Og	Lorategirako musika. Demode Quartet: «A kupela»	7 Orr.
15 Os		
16 La		
17 Ig	Antzeturiko bisita	6 Orr.
18 Al		
19 As		
20 Az	Antzerkia, zirkoa. NiMÚ Teatro: «Jacuzzi»	8 Orr.
21 Og		
22 Os	Lorategirako musika. J.Fox. Jazza	7 Orr.
23 La	Erakusketa. Zangozako jaietako kartelak (irailaren 17ra bitarte)	5 Orr.
24 Ig	Antzeturiko bisita	6 Orr.
25 Al		
26 As		
27 Az		
28 Og		
29 Os	Erakusketa. «Duela 30 urteko jaiak» (irailaren 21era bitarte)	5 Orr.
30 La	Merkataritzaren festa	8 Orr.
31 Ig		

Azaleko irudia: «A kupela» (Demode Quartet).

Erakusketak



«El conocimiento en el camino»

ABUZTUAREN 17RA BITARTE

Donejakue Bideko Kazetarien Elkarteen Ligak sustatutako erakusketak Bide Frantsesaren «originaltasuna eta magia» ezagutzera eman nahi ditu: ezagueraren ibilbidea.

Erakusketa bederatzi argibide-panelek eta Villar López eta Pablo Lasaosa fotokazetarien 30 argazkik osatzen dute, Bidea erretratatzeko dutenak: bertako jendea, herriak, bazterrak, etab.

Panelek honako gai hauek jorratzen dituzte: «Jatorria», Santiago nor den eta hilobiaren aurkikuntza azaltzen dituen; «Izarren eta antzaren bidea», izar-eremua eta antzaren migrazio-bidea Bidearen adierazle hartzen dituen.

«Tenplarioak, Bidearen zaindariak», non ordena hori munduko lehen banka bezala aurkezten baita. «Zubiak, ibiak, ibaiak eta ura», Erdi Aroko ingeniariaren oinarritua, oztopoak saihestuz ibilbidea egiteko. «Aterpeak arrats beheran», ostatu, ospitale eta mandatuak aipatzen dizkiguna. «Magia eta kondaira lekuak», gertaera eta toki zoragarri edo fantastikoak kontatzen dizkiguna, prozesu historikoaren zati gisa onarturiko kondairak. Azkenik, «Bideko bitxikeriak», bideko ipuinekin eta benetako eta fikziozko pertsonaien istorioekin, eta «Literatura bidean», erakusketaren edukia osatzen duena.

ONCE fundazioak Brailleko paneletako testuak gehitzen lagundu du.


Gainera, erakusketak osagarri didaktiko bat dauka, 20 metro karratuko antzara-joko bat. Bertan, Bide Frantsesa zeharkatuko da, Somportetik zein Luzaidetik sartuz, Garesen elkartuz eta Bide Frantseseko herrietatik jarraituz Santiagoraino.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa aretoa eta 2. solairuko Erakusketa aretoa.

Antolatzailea: Donejakue Bideko Kazetarien Elkartea.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Erakusketak



ZANGOZAKO JAIETAKO KARTELAK

Helduen eta haurren mailak

ABUztuaren 23tik Irailaren 17ra

2025eko Zaindariaren Jaiak iragartzeko Kartel Lehiaketaren lanak biltzen ditu erakusketak.

Iñaki Fernández irabazlea izan zen «Espejo festivo» kartelarekin helduen mailan. Haurren mailan, 12 urteko **Zuriñe Sasalek** lortu zuen saria «Gure buruhandi maiteak» kartelarekin.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

«DUELA 30 URTEKO JAIK»

Argazki-erakusketa

Henrike II.a Albretetako Kultur Taldea

ABUztuaren 29tik Irailaren 21era

Beren ibilbide profesionalaren barruan, Antonio Francak eta Enrique Jugandek urte anitzetako jaiak argazkiak atera zizkieten, eta erakusketa honetan 30 urte lehenago joan gara, 1995ean.

Argazkiak Enriqueren familiak Henrike II.a Albretetako Kultur Taldeari emandako negatiboen artxibokoak dira. Horietako ugari (20.000 inguru) Alberto Elizalde eskaneatu zituen (famiak fitxategiak eman zizkigun). Gainerakoak pixkanaka eskaneatzen ari gara, eta 1995eko jaietakoak egin berri ditugu.

Erakusketaren argazkiak Zangotzarra aldizkariaren hurrengo alean argitaratu eta azaroaren hondarrean aurkeztuko ditugu. www.zangotzarra.es orrialdeko fototekan ere ikusi ahal izanen dira (dagoeneko 17.000 argazki baino gehiago daude).

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko behealdeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzailea: Henrike II.a Albretetako Kultur Taldea.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Ordutegia: asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Kultur 2025



FLAMENCO

JERÓNIMO MAYA eta MIGUEL JIMÉNEZ

Rímur

OSTIRALEAN, ABUZTUAK 8

Flamenco Rímur proiektu musikal berritzailea da, Jeronimo Maya gitarrista flamenkoaren eta Reynir Del Norte gitarrista islandiarraren elkarlanetik sortua. Proposamenak flamenko tradizionala eta Islandiako abesti herrikoia eta folklorikoak batzen ditu, ikuskizun berri bat sortuz. Eta Islandian zehar bi bira arrakastatsu eginez. Taldea Miguel Jimenez kantariak, Daniel Caballero dantzariak eta Einar Scheving perkusionistak osatzen dute.

Jeronimo Maya flamenkoaren mirari handienetako bat da, eta generoko artista nagusiekin jo izan du oso gaztetatik. Reynir Del Norte, berriz, aitzindaria da Islandian gitarra espainiarrean, eta flamenkoa modu aktiboan sustatu du bere herrialdean. Ekarpak kulturala dela eta saritua izan da. Daniel Caballerok Madrilgo Amor de Dios Estudioan jaso zuen prestakuntza, eta dantza-estilo berritzaile eta erro flamenkoekiko leiala izateagatik nabarmentzen da.

Ikuskizunak kultura anitzeko esperientzia paregabea eskaintzen du, tradizio flamenkoaren eta Islandiako musika-herentziaren arteko elkarriketan oinarritua.

Ordua: 20:30. **Iraupena:** 75 minutu.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategia.

Sarrera doan.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.



Antzezturiko bisitak



"Viaje en el tiempo en Sangüesa"

PRODUCCIONES ADRIANA OLMEDO

IGANDEAN, ABUZTUAK 3, 10, 17 eta 24

Antzerkilariak: Adriana Olmedo, Nerea Bonito, Patxi Larrea.

Denboran zeharreko bidaia bat proposatzen dizugu, eta bidaia horri esker mendeetan barna bisitatu ahal izanen dugu Zangoza. Erdi Aroko ospean, Aragoirekin izandako gerretan, Errege-erreginen jaioterri gisa edo Donejakue Biderako ate gisa ezagutu. Garai guztiak nahastuko dira goiz batean. Eta, gainera, festa egingen dugu. Bazatoz?

Ibilbidea: Santa María Elizaren Aurrealdea, Aragoi Ibaia, Vianako Printzearen Gaztelu-jauregiaren Barnealdea, Karrika Nagusia, Vallesantoro Jauregia eta Karmengo Komentuaren Klaustroa.

Topalekua: Santa María la Real Eliza.

Ordua: 11.30etik 13:00era. **Bisitak doan.**

Argibideak: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



Lorategirako musika



«A kupela»

DEMODE QUARTET

OSTEGUNEAN, ABUztuAK 14

Taldeakideak: Joli Pascualena, Iker Huitzi, Santi Romano eta Karlos Nguema.

Bost kontinenteetako folkloreko abesti ezagunek eginiko ibilbidea, hizkuntza eta genero desberdinak barne hartzen dituen. Jatorrizko bertsioak, gehienak, 'a capela' interpretatzen direnak. Hori guztia ohiko umorearekin eta aurkezten dituzten abestiei, herrialdeei edo egileei buruzko teoria zentzugabe eta harrigarriekin nahastuta. Countrytik bollywoodera, Ladinozko abesti sefardi batetik pasatuz; chanson frantsesa, musika zelta ingelesez eta gaelikoz; maorien haka baten eta Zeelanda Berriko baleazaleen abesti baten nahasketa; eta min'yo eta j-poparen erritmo modernoaren fusio tradizionalagoa.

Iraupena: 75 minutu.

Ikusleak: ikusle guztiendako.



Jazza

J.FOX

OSTIRALEAN, ABUztuAK 22

Taldeakideak: Oskar Lakunza (saxoa), Xabier Barrenetxea (baxu elektrikoa), Juamma Urriza (bateria) eta Fredi Peláez (teklatura).

J.Fox jazz garaikidearen mugak berrasmatzen dituen laukotea da, sentsibiltate melodikoa eta generoaren aberastasun harmonikoa funk, musika latino eta groove modernoaren eraginekin batuz. Yellowjackets, Spyro Gira edo The Rippingtons taldeen sormenean eta bertuosismoan inspiratuta, soinu bereizgarria garatu dute. Laukote hau proposamen berritzaile gisa finkatu da egungo jazzaren eszenan.

Iraupena: 75 minutu.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategia.

Sarrera doan: gratuita.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Antzerkia, zirkua



«Lullaby»

KAVAUARI PROIEKTUA

11 sari Panorama Circada 2023 eta Lorca eta Paca sarietarako izendapena.

ASTEAZKENEAN, ABUZTUAK 13

Artistak: Claudia Ortiz eta Carmine Piccolo.

Akrobata bikote batek eta guraso hasi berriek baskula eta garraio akrobatikoen ikuskizun bat aurkeztuko digute, non azken uneko jauzi frenetikoak eta heldualdiak ikusiko ditugun. Dena kontrolpean dagoela dirudi, baina gaur haurtxoa ez da erraz jartzen ari, eta ikuskizunak hasi egin behar du. Beraz, ez dute aukerarik: gurditxoa hartu eta pistara aterako dira. Gaur egun "gero eta zailagoa" ez dira mortalak eta itzulipurdiak, kontziliazioa baizik. Eta horrela, kaosa eta baldarkeria komedia bihurtuko dira azken helburura iristeko: ikuskizuna bizirautea.

Iraupena: 50 minutu.



«Jacuzzi»

NIMÚ TEATRO

ASTEAZKENEAN, ABUZTUAK 20

Antzerkilaria: Xandra Gutierrez.

Pertsonatxo honek ez du deus esaten... eta dena esaten du. Keinu-antzerkiaren eta objektuen manipulazioaren maneiu eredugarriaren bidez, zirkuko artista honek publikoari erakutsiko dio grabitatearen legeari aurre egiteko gai dela, soka ahul baten gainean trebetasunez ibiliz. Komikotasunez zipriztinduta eta giro poetikoan bilduta, artista gazte honek publikoa konkistatu eta bere mundura, niMÚren mundura, eramaten duen ikuskizuna sortu egin du.

Iraupena: 40 minutu.

Ikusleak: ikusle guztiendako.

Ordua: 19:30.

Lekua: Luis Gil I.P.ko jolastokia.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Beste ekitaldi batzuk

Zangozako Merkatarien Elkartearen kanpaina

MERKATARITZAREN FESTA

LARUNBATEAN, ABUZTUAK 30

Haur eta helduendako jarduerak egun osoan zehar.

Antolatzailea: Zangozako Merkatarien Elkartea.

Laguntzailea: Zangozako Udala.

